

Gazteen partaidetza Hiri eta Herri Jasangarrien Europako 8. Konferentzian



2016ko apirilaren 12an Bilbon egindako Foroa, 10:00etatik 12:00etara

Emaitzen txostena

“Ko-sorkuntza elkarrekin sortzearen artea da”

Hiri eta Herri Jasangarrien Europako 8. Konferentziaren bezperetan, dokumentu honen helburua 2016ko apirilaren 12an **gazteekin egindako foroan** sortutako ideia eta gogoeta nagusiak biltzea da.

Aipatutako Foroan euskal geografiako toki desberdinetatik iritsitako **8 mutil eta 8 neskek** hartu zuten parte. Zehazki, honakoek:

Iraide Alonso Carlos Martín	IES Kantauri BHI Santurtzi
Olatz Tueros Pablo Albero	Somorrostro Irakasgunea Muskiz
Inés Aranguren Mikel Peña	Colegio Calasancio Bilbao
Andrea Paramo Jon Serrano	IES Dolores Ibarruri BHI Abanto-Zierbena
Beatriz Salas Jon Cereceda	Egibide Vitoria-Gasteiz
Mari Fraya Aguirre Josu Garate	Lizardi BHI Zarautz
Itzel Torres Aitor Cañamero	La Anunciata Donostia
Aitor Martínez Ane Leizeaga	Olazabal BHI Legazpi



Eskerrik asko guztioi!

Mila esker Foro honi edukiak eta zentzua eman izanagatik. Plazera izan da!

Dokumentuaren egitura

Tailerrak izan zituen fase edo une desberdinetan oinarrituz, emaitzen txostena honela egituratzen da:

- 1go unea. Zer da zuentzat Hiri edo Herri Jasangarri bat? Nola uletzen dugu?
- 2. unea. Gazte zareten ikuspegitik, zeintzuk dira Hiri eta Herri Jasangarriagoetarantz urratsak emate aldera gaur egun dauzkagun erronka nagusiak?
- 3. unea. Zeintzuk dira aldaketarako palankak? Bestela esanda, zein baliabide dauzkagu gaur aldaketarako giltzarriak izan daitezkeenak?
- 4. unea. 8. Konferentzian parte hartuko dutenei zuzendutako mezuak.




Foroak fase bakoitzean sortutako eduki eta emaitzak berriz, datozen ataletan ageri dira.

1go unea. Zer da zuentzat Hiri edo Herri Jasangarri bat? Nola uletzen dugu?

Banaka egindako gogoetarekin batera, mahaiko pieza desberdinekin jolasean parte hartzaile bakoitza bere ideiei forma ematen joan da.

Honela, sortutako irudi eta forma desberdinek gazte bakoitzak hiri edo herri jasangarri batetaz ulertzen duena espresatzeko balio izan du.

Lortutako emaitza honakoa izan da:



Jasangarria den Hiri edo Herriak:

- **Erdigunean pertsonak eta haien beharrak jartzen ditu**
 - Pertsona eta haren beharrak daude, beraz, erabakiak hartzeko prozesuen erdigunean.
- **Barneratuta dauka jasangarritasunaren aldeko lana beharrezkoa dela**
 - Jasangarritasuna ez da kapritxo bat, beharrezkoa eta derrigorrezkoa den zerbait baizik. Ez da aukera bat; aldez, bide posible bakarra da.


- **Ingurumena errespetatu eta zaintzen du, harekin elkarbizitza orekatu eta atsegina izanez**
 - Ingurumenarekin eta biodibertsitatearekin komunikazioa, lotura eta elkarbizitza dauzka.
 - Ingurugiroa zaintzearekiko sentsibilitate kolektiboa badago.
 - Baliabide naturalak errespetuz eta modu zainduan erabiltzen dira.
- **Energia berriztagarrien aldeko apustua egiten du**
 - Eguzkiaren, haizeran, lurraren, itsasoaren... energiari dagozkion aukerak ikertu eta garatzen ditu.
- **Hondakinak gutxitu eta kudeatzen ditu**
 - Hondakinak modu egokian kudeatzen dira eta gehiengo batean lehengai gisa balorizatzen dira.
- **Ingurunearekin konektatutako hirigintza konpaktua eta anitza garatzen du**
 - Sakabanatzearen ordez, plangintza konpaktuaren aldeko apustua egiten du.
 - Ingurunearekin harremanak eta loturak bilatzen ditu. Natura hirian dago baita ere.
 - Harremanetarako eremuak lehenesten ditu: plazak, parkea, atseginak diren kaleak...
 - Garraio publiko eta kolektiboaren erabilera sustatzen du.
- **Bertako elikagaien ekoizpena eta kontsumoa sustatu eta babesten ditu**
 - Hiri-ortu ekologikoen sarea dauka.
 - Elikadura burujabetza du helburu.
 - Oso urrutitik datozen elikagaien garraioa minimizatzen du.
- **Ekonomia zirkularra garatzen du**
 - Fase batzuetako hondakinak beste fase batzuetarako lehengai gisa erabiltzen ditu.
 - Natur baliabideak modu eraginkorrean erabiltzen ditu.

- **Soluzio berri eta metodo sortzaileen bila ikerketa garatzen du**
 - Hiriei jasangarriagoak izaten laguntzen dieten soluzio berriak; zenbait gaitan gure eredu ekonomiko propioan harrapatuta bizi baikara.
 - Teknologia aprobeztatzen du soluzio eraginkorragoak sortzeko.
- **Elkarlanaren eta modu kolaboratiboan aritzearen aldeko apustua egiten du, aurrera egiteko modu gisara**
- **Pertsonak hezi, trebatu eta gaitzen ditu**
 - Jasangarritasunerako hezkuntza txertatua dago eskolan eta barneratuta gizartean.
 - Hezkuntzan inbertitzen da.

2. unea. Gazte zareten ikuspegitik, zeintzuk dira Hiri eta Herri Jasangarriagoetarantz urratsak emate aldera gaur egun dauzkagun erronka nagusiak?

Zeintzuk dira gaurko gakoak? Zeintzuk dira erronka nagusiak edo lehentasunez gure ekintza eskatzen duten fokuak?

Taldeak eraikitako emaitza honakoa izan da:



Gaurko erronka nagusiak:

- **Gizarte arloan kontzientzia eta sentsibiltate gehiago sortzea**
 - Pertsonak heziz, gai desberdinetan trebatuz eta sentsibilizatuz.
 - Jasangarritasunaren alde dabilzan pertsonen eta eragileen arteko sareak sortuz.
 - Pertsonen eta eragile sozioekonomikoen konpromisoa eta ekintza bilatuz.
 - Jasangarritasuna eta haren garapena hezkuntza formalean txertatuz: ekonomia jasangarria, ohitura jasangarriak...

Gaurko erronka nagusiak:

- **Ekonomia jasangarriago baterantz urratsak ematea**
 - Soluzio, forma, lan egiteko modu, lan arlo... berrien eskaera soziala areagotuz.
 - Enpresetan kontzientzia gehiago sortuz eta konpromiso zehatzak hartuz.
 - Ingurumenarekiko eragin negatiboak ahalik eta gehien gutxituz.
 - Gizarte eta ingurumen arloko interesak enpresetan ere sarituz.
 - Soluzio berrien garapena erraztuko duten teknologietan giza baliabideak eta ekonomikoak inbertituz.
- **Ikerkuntzan eta teknologian inbertsio gehiago egitea**
 - Eremu guztietan soluzio eraginkorragoak sortze aldera: garraioa, energia, hondakinen kudeaketa, gizartearekiko arreta, ekonomia zirkularra...
 - I+G+B hezkuntza-zentroetara gerturatuz: lanbide hezkuntza, unibertsitatea...
 - Eskoletatik teknologiaren kultura sorraraziz.
- **Gizartea eta gobernuak konektatzea**
 - Gobernuen politikak eta ekintza pertsonetara eta gizartera gerturatuz.
 - Herritarrak jasangarritasunerako politiken definizioan, garapenean eta ebaluazioan inplikatur.
 - Azken finean, zubiak eraikiz.
- **Erdigunean pertsonen eta ingurumenaren osasuna jartzea**
 - Kutsadura urria duten inguruneak sortuz.
 - Ohitura osasungarriak hartzea erraztuz: garraio publikoa erabiltzea, bertakoak eta osasungarriak diren elikagaiak sustatzea...
 - Horiei lotutako ikerkuntza garatuz.

Eta hori guztia kontutan hartuz **gure belaunaldia gakoak dela.**

Guk pairatuko ditugu aldaketa klimatikoaren eraginak, guk jasango dugu mugatuak diren baliabideen agortzea... eta beraz, beharrezkoak diren aldaketak sustatu eta kudeatzea tokatuko zaio gure belaunaldiari. Ez dago beste aukerarik. Prozesua motela izango da, baina urratsez-urrats joango gara dagoen aukera bakarrarekin –jasangarritasuna, bai ala bai- bat egingo duten pertsona, eragile eta enpresen arteko sareak sortzen.

3. unea. Zeintzuk dira aldaketarako palankak? Bestela esanda, zein baliabide dauzkagu gaur aldaketarako giltzarriak izan daitezkeenak?

Galdera horietatik abiatuz, neska mutilen taldea Foro gisa erantzun kolektiboa eraikitzen joan da.



Aldaketarako palankak:

- **Orain da momentua**
 - Gazteok badakigu aldaketak beharrezkoak direla. Agerikoa da. Egunero ikusten ari gara funtzionatzen ez duen ereduaren ondorioak.
 - Emandako urratsak aitortuz, asmo handikoak gara aurrera egitearen beharrari dagokionean.
- **Gaitasuna dugu elkarrekin lan egiteko**
 - Badakigu elkarlanak eta pertsona batzuen eta besteen arteko lankidetzak geldiezin den indarra sortzen duela. Gizartearen indarra da, bere kabuz aldaketak sustatu eta eragiteko gai dena, gobernuen zain egon gabe.
- **Metatutako eperientzia**
 - Badira urrats garrantzitsuak ematen ari diren gobernuak, hiriak, herriak... Esperientzia hori beharrezkoa da aurrera egin eta bide berriak garatzeko.




Aldaketarako palankak:

- **Ikerketa eta teknologia**
 - Beharrezko tresnak dira hainbat alorretan aplikatu daitezkeen soluzioak sortzeko –garraioa, hirigintza, energia, adineko pertsonei zuzendutako arreta...-. Soluzio horiek urratsez urrats ari dira garatzen.
 - Ildo horretan, beharrezkoa da giza baliabide eta ekonomikoak jartzen jarraitzea, bide horretan aurrera egin ahal izateko.
 - Gainera teknologiak mundu osoko pertsonei arteko konexioak eta sareak sustatzen ditu, aldaketak eragiteko, eskaera soziala sortzeko, ezagutza partekatzeko...
- **Konpromisoa eta ekintza, norbanakoena eta kolektiboa**
 - Dakigunaren eta banaka zein kolektiboki egiten dugun ekintzaren arteko koherentzia sakontzea beharrezkoa da. Ezagutza badaukagu, baina praktika eta ekintza jasangarrian sakontzea falta da.
 - Gure erabaki eta ekintzen arteko ardura partekatua.

4. unea. 8. Konferentzian parte hartuko dutenei zuzendutako mezuak

Foro hau amaitzeko parte hartu zuen gazte bakoitzari zera eskatu diogu: Hiri eta Herri Jasangarrien Europako 8. Konferentzian parte hartuko duten pertsonekin mezu bat partekatzerik izango balute, zein izango litzatekeen zehaztea.

16 gazteek idatzitako mezuak, hitzez-hitz, honakoak dira:



The banner features the conference logo on the left, which includes a stylized map of the Basque region and the text: "8th EUROPEAN CONFERENCE ON SUSTAINABLE CITIES & TOWNS" and "BASQUE COUNTRY | BILBAO | 27 - 29 APRIL 2016". On the right side of the banner, the website "basquecountry2016.eu" is displayed.

- "Guk daukagu boterea orainaldia ete bereziki etorkizuna aldatzeko eta horrenbestez gure osasuna, hezkuntza eta orokorrean gizartearen bizi maila hobetzeko. Nahikoa baliabide ditugu hori lortzeko, hala nola energia berriztagarriak, teknologiaren garapena eta gazteriaren kontzientziarioa. Natura ez da gure etsaia, gure laguna baizik, eta horregatik gizarteak elkarlanean aritu behar du bere alde eta ez aurka, daukaguna mantenduz edo hobetuz ikerketarekin eta suntsipena baztertuz ahal den heinean teknologiak proposatutako baliabideekin."
- "Etorkizuna aldatu dezakegun belaunaldia gara, beraz, gaur egun ditugun arazoei buruz biztanleria kontzientziatu behar dugu. Hori egiteko teknologia berriak behar ditugu, baita ikerketak egitea ere. Horregatik, gobernuari eskatzen diogu ere inbertsioa egitea energia berriztagarrien arloan, gure etorkizunaren egoera txarra ekiditu ahal izateko."
- "Hiri edo herri jasangarriak sortzeko momentua da. Horretarako elkarlana behar-beharrezkoa da. "Txipa" aldatu behar dugu guztiok batera eta kontzientzia sortu guztion artean. Hori eginez gero, jasangarritasuna barneratu egingo genuke eta ez genuke imajinatuko beste inolako gizarterik."



- "Etorkizun bat izan bahi badugu, mundu jasangarri bat sortu behar dugu. Jada ez da kapritxo bat, ez da desio huts bat; daukagun bide posible bakarria baizik. Erronka zaila da eta helburu honetarako bidea motela, baina aurrera egin beharra daukagu, denok batera, gelditu gabe elkarlanean. Kontzientzia hau zabaldu beharra dago, hezkuntzaren bidez, eta praktikan jarri, banakako bakoitzak egin dezakeen apurra eginaz. Eraiki dezagun etorkizun hobeago bat, denon artean."
- "Munduak dagoen bezala jarraituz gero, dena arriskuan jartzen dugu: bai gure burua eta baita etorkizunekoena ere. Beraz, hau jendeari iritsi behar zaio eta kontzientziatu egin behar gara, benetako arazo bat delako. Orain ez du balio pentsatzeak "ba, beste norbaitek egingo du", ez, zerbait egin behar da eta orain egin behar da. Jende asko egongo da pentsatzen arazo honek ez diela beraiei eragiten, baina eta zer gertatuko da zuen semen alabekin? Nahiz eta aldaketa ez izan bapatekoa, etorkizunean nabaria izango da."
- "Ez daude amets handiak, bakarrik ameslari txikiak. Esfortzuarekin guztia posible da eta denok batera aldaketa gure eskuetan dago: azkenean hau da gure seme-alabei utzi nahi diegun mundua?"
- "Aurrerapena posible da, eta elkarrekin lan eginda, bai gazteok eta bai helduak erabateko proposamen izugarriak ateratzeko gai izango ginateke. Bi buruk, buru bakar batek baino gehiago pentsatzen badute, ez dut imajinatu nahi guztiok batera lortu ahal izango duguna."
- "Hiri jasangarria ez da aukera bat, gure etorkizuna da. Pertsona batzuk adituagoak izan daitezke gai honetan, baina hala ere, guztion ardura da gure ingurunea zaintzea, guztiok gizarte bat bezala, elkarrekin lan eginez eta aurrera jarraituz. Helburu hau bakarrik lor dezakegu pertsona guztien konpromisoarekin. Goazen guztiok elkarrekin lan egitera eta gure helburua lortzera. Goazen gure etorkizunagatik borrokatzera."
- "Euskal Herriko gazteok badakigu gure belaunaldiak izugarrizko garrantzia daukala herri eta hirien etorkizunerako. Eta kontzientziatuak gaude aldaketak egin ahal izateko!"



- "Gazteok ez gara soilik esan dugunarekin geratuko eta praktikan jartzeko ahalegina egingo dugu, gure herri eta hiriak, ahal dugun neurrian, jasangarritasunerantz bideratuz."
- Konpromezua. Hori da Euskal Herriko, Europako eta munduko gazteek eta gizarte osoak eskatzen duguna. Konferentzia honetan esaten eta sinatzen dena benetan betetzea, zintzoki. Hemen esandako guztia ez geratzea hitz soiletan. Bestela, pairatuko du gure desinteresa eta inobilismoa. Zenbait sakrifizio egin behar dira, noski, baina ziur gaude gustuz egingo ditugula naturaren eta garapenaren mesedetan, gure etorkizuna ziurtatzeko.
- Gu gara etorkizuna. Asko hobetu dugu, baina oraindik gehiago hobetu daiteke. Denon laguntzaz eta elkarlanaz baliatuz, gauza handiak lor ditzakegu, bidea luzea izan arren.
- Gaurtik eta ostiralera arte bildu gara gure hiri eta herriek, txikienetik handienera, dauzkaten erronka eta indarrez hitz egin eta eztabaidatzeko. Baina horrekin soilik ez dugu nahikoa; pentsatzea garrantzitsua bada, egitea are garrantzitsuagoa delako.
- Gaur egun denok dakigu Lurra nolako egoera duen, guztiok kontziente gara horri buruz. Baina nahiz eta Lurra babesteko gauza asko egin, oraindik hainbat gauza geratzen dira hobetzeko eta hobekuntza hori lortzeko guztion laguntza behar dugu; elkarlana behar dugu gure ingurumena, biodibertsitatea eta natura babesteko.
- Denon eskuetan dago mundu hobe bat izatea, horregatik gauzak egiterakoan pentsatu behar dugu zer efektu -onak edo txarrak- duten gure ekintzek, nola egin dezakegun mundua hobetzeko... "Think globally, act locally".
- Errealitatea da gaur egun Lurra ez dagoela bere momentu hoberenean. Ikusten ari gara Lurra esaten ari zaigula neurriak hartu behar ditugula laster, bestela gu desagertuko garelako. Orduan, zergatik ez ditugu neurri horiek hartzen? Erantzuna erraza da, diruak garrantzia gehiago duelako gure esistentziak baino. Diruak irabazi duen arrakastak oztopatzen ditu proiektu oso onak aurrera eramatea, azken finean dirua galtzen ari galderako. Baina galdera garrantzitsua izango litzateke: zer nolako garrantzia izango du diruak bizi garen planetan bizitza egon ezin bada, gure diru-goseagatik? Konzienteak izan behar dugu natura zaindu behar dugula, inolako preziorik jarri gabe; bestela hainbeste denbora eraman izan duen eboluzioa urte batzutan desagertuko da.

Eskerrik asko guztioi!



**Iraide - Carlos - Olatz - Pablo - Inés - Mikel - Andrea - Jon - Beatriz
- Jon - Mari - Josu - Itzel - Aitor - Aitor - Ane**

Eskerrik asko Foro hau errealitate bihurtzeagatik. Eskerrik asko zuen gogoeta eta lanagatik. Eskerrik asko hain erraz jarri diguzuelako. Dokumentu hau zuena da.
Zorionak!

Hiri eta Herri Jasangarrien Europako 8. Konferentzian zain izango gaituzue.
Bertan Pablo, Ines eta Jon izango dira zuen desio,
eskari eta konpromisoerik ahotza jarriko dietenak.